

EAGI LHII IKASTETXEAREN EBALUAZIO IRIZPIDEAK

GOI MAILA

Aurkibidea

1 Ebaluazioa.....	2
1.1 Gaitasunen ebaluazio sistema.....	2
1.2 Gaitasun teknikoak.....	2
1.3 Zeharkako gaitasunak.....	2
2 Berreskurapenerako irizpideak.....	2
2.1 Gaitasun teknikoak.....	2
2.2 Zeharkako gaitasunak.....	3
3 Balioztatzeak.....	3
4 Asistentzia eta puntualtasuna.....	3
4.1 Hutsegiteen kudeaketa.....	3
4.2 Berandutzeen kudeaketa.....	4
5 Lan praktikaldiak.....	4
6 Sakelako telefonoaren erabilera ikasgela eta tailerrean.....	5
7 Musika entzutea.....	5
8 Ebaluazio berezia.....	5
9 Komunikazio protokoloa.....	5

1 EBALUAZIOA

1.1 GAITASUNEN EBALUAZIO SISTEMA

Modulu bakoitza ebaluatzeko honako 2 item hauek izango dira kontuan:

- Gaitasun teknikoak. %60
- Zeharkako gaitasunak. %40 (%50 gela + %50 erronkak bere osotasunean)

Erronkak, gaitasunak lantzeko tresnatzat hartzen dira.

Batezbestekoa egin eta ebaluazioa gainditzeko derrigorrezkoa izango da dagozkion jarduera ebaluagarri denak gaindituta izatea (5/10);

1.2 GAITASUN TEKNIKOAK

Gaitasunak neurtzeko erabilitako jarduera bakoitzak bere errubrika izango du, izan azterketa bidez, baita entregatu beharreko lanen bidez ere.

1.3 ZEHARKAKO GAITASUNAK

Zeharkako gaitasunak neurtzeko honakoak izango dira kontuan:

- erantzukizuna / ardura / asistentzia / jarrera
- autonomia;
- talde-lana;
- ahozko eta idatzizko komunikazioa;
- errespetua
- erronka bere osotasunean (erronka aldiaren badaude) %50

2 BERRESKURAPENERAKO IRIZPIDEAK

2.1 GAITASUN TEKNIKOAK

Gainditu gabeko jarduera ebaluagarrien berreskurapena, ekaineko 1 AZKEN EBALUAZIOAN egin beharko da.

Berreskuratutako jarduera eta moduluaren kalifikazioa honela kalkulatu da:

- frogaren nota > 8 bada → 6
- frogaren nota < 8 bada → 5

1. AZKEN EBALUAZIOAN gainditzen ez diren moduluak, 2. AZKEN EBALUAZIOAN gainditu ahalko dira. Kasu honetan modulu osoa izango da aztergai.

2.2 ZEHARKAKO GAITASUNAK

Erronka edo modulu batean gainditu gabeko zeharkako gaitasunen bat izanez gero, berau berreskuratu ahal izateko hurrengo erronkan edo moduluko ebaluazioan, gainditu egin beharko da zeharkako gaitasun hori. Azken ebaluazioan honela jokatuko da:

- erronken zeharkako gaitasunak gainditu gabe baditu: 1. AZKEN EBALUAZIOAN modulu guztiak berreskuratu beharko ditu;
- modulu baten zeharkako gaitasunak gainditu gabe baditu: 1. AZKEN EBALUAZIOAN. modulu hori berreskuratu beharko du.

3 BALIOZTATZEAK

Ikasturte bakoitzaren hasieran Idazkaritzan eskatu beharko dira baliozkotzeak. Idazkariak jakinaraziko dizkie dagokien irakasleei gaindituta dituzten moduluak. Tutoreak egingo du jarraipena.

Ikaslea aparejadore, arkitekto, obra zibileko ingeniari... izanez gero eta modulua bere osotasunean menperatzen badu ere, ez dira barne balioztatzeak egingo. Ikasleak modulu guztiaren azterketa (1. AZKEN EBALUAZIOA) egiteko aukera izango du.

Moduluak balioztatuta dituzten ikasleek erronka garaian ordutegi osoa bete beharko dute.

Ikasle errepikatzaile batek, erronkak gaindituak baditu ere, erronketan parte hartu behar du. Irakasle taldeak bestelakorik erabaki dezake.

4 ASISTENTZIA ETA PUNTUALTASUNA

4.1 HUTSEGITEEN KUDEAKETA

Ikasleek egunero joan behar dute eskolara, puntualtasunez eta justifikatu gabeko absentziarik izan gabe, eta sartzeko nahiz irteteko ordutegiak errespetatu behar dituzte. (201/2008 DEKRETUA)

Modulu batean ikasleek zeharkako gaitasunak gainditu gabe izango dituzte honako kasu hauetan:

- huts egite orduak iraupenaren %20a gainditzen badute (huts egite zuritu gabeak + zuritua).

Hutsegiteak agirien bidez zuritu beharko dira eta zuritutzat hartzeko motiboak honakoak izango dira:

- mediku kontsultak;
- azterketa ofizialak;
- ikasleen gehiengoak onartutako grebak;

- irakasle taldeak baloratu beharreko bestelako egoerak.

4.2 BERANDUTZEEN KUDEAKETA

- Ikasgelan 5 minututik gora berandu etortzen den ikasleari ordubeteko falta jarriko zaio;
- tailerrean 15 minututik gora berandu etortzen den ikasleari ordubeteko falta jarriko zaio (8:15 edo 11:45).

5 LAN PRAKTIKALDIAK

Praktikalditik ikaslea eskolara bueltatzen bada, dena delako arrazoiarengatik, ikastetxeko egutegia eta ordutegia bete beharko ditu praktikaldia utzi eta hurrengo egunetik aurrera, irakasle taldeak aurkakorik erabakitzen ez badu behintzat. Hutsegiteak kontuan hartuko dira eta ondorioak izango dituzte beste erronketan bezalaxe.

Ikasleak ezin du lan-praktikaldia bere aldetik utzi. Ikasleak arazoren bat badu tutoreari azaldu beharko dio zer nolako arazoa duen eta erabakiari itxoin. Tutorearekin hitz egitea lortuko ez balu, ikastetxearekin jarri beharko luke harremanetan edozein erabaki hartu aurretik

Lan-praktikaldian gerta daitezkeen gorabeherak honela kudeatuko dira:

- ikasleak alde bakarrez erabakia hartuta praktikaldia utzi badu EZ GAINDITUTZAT emango zaio. Ikastetxean egongo den egunetan praktikaldiko txostena egin eta aurkeztu beharko du, irakasle-taldeak bestelakorik ez badio behintzat. Beste lanen bat eginarazi diezaiokete horrez gain edo horren orde, horrela erabakitzen badute.
- ikaslea praktikalditik KALERATU badute irakasle-taldeak erabakiko du nola jokatu, gertatutakoa aztertuko du eta honen arabera ondorioak ezarri. Kaleratzearen motiboak arrazoizkoak balioetsi badira zeharkako gaitasunak EZ GAINDITUTZAT emango dira eta hirugarren ebaluazioko modulu guztiak aztergai izango ditu 1. AZKEN EBALUAZIOAN.
- Ustekabeko beste edozein egoera emanez gero, irakasle-taldearen esku geratzen da erabakia hartzea eta ondorioak ezartzea.
- Zuritu gabeko 3 hutsegite egiteak lan-praktikaldia EZ GAINDITZEA eragingo du.
- Ikasleak praktikaldien egunerokoa 2 aste jarraian betetzen ez badu, telefonoz abisua emango zaio. Abisua eman eta gero berriro gertatzen bada, praktikaldia EZ GAINDITZEA eragingo du.
- Praktikaldia 3. ebaluazioan denez, zeharkakoetarako adierazle izango da. Zeharkako gaitasunak: %40 (%50 gela + %35 Erronkak bere osotasunean+%15praktikaldia)

6 SAKELAKO TELEFONOAREN ERABILERA IKASGELA ETA TAILERREAN

Ikasleek ezin dute sakelako telefonoa erabili ez ikasgelan ez tailerrean, ez bada irakasleak baimena eman duelako ikaskuntza jarduera bat gauzatzeko.

Ikasleek mugikorrek bakoitzaren karpetan utziko dituzte.

7 MUSIKA ENTZUTEA

- Tailerrean: ikasleek ezingo dituzte belarritako entzungailuak erabili.
- Ikasgelan: ikasleek musika entzun ahal izango dute entzungailuen bidez, irakasleak honetarako baimena ematen dietenean.

8 EBALUAZIO BEREZIA

Huts egite kopurua %20koa baina handiagoa izan daitekeela aurreikusten duten ikasleek EBALUAZIO BEREZI eskaera egin dezakete. Segidan adierazten dira ebaluazio berezi eskaera egin ahal izateko motiboak (kasu guztietan dagozkion agiri ofizialak aurkeztuta):

- iraupen luzeko lan-kontratua;
- autonomoetako alta agiria;
- iraupen luzeko osasun arazoa,
- irakasleek baloratu dezaketen beste agiriren bat.

Dena dela, ikasleak gutxieneko %60ko bertaratzea bermatu beharko du ebaluatu ahal izateko.

9 KOMUNIKAZIO PROTOKOLOA

Ikasleak, arazoren bat badu moduluren batean, modulu horretako irakaslearekin hitz egin eta argituko du.

Ez badira konpontzen, tutorearekin bilduko da eta azken errekurtsio bezala, ikasketa buruarekin bilduko da.